

2013'ko Otsaillaren 1'an Billabonan

SAGARDOETXEA
Kale Nagusia 48
ASTIGARRAGA


Zuzendari Jaunari:

Leen badet ala moduzko lan bat or entregatua, baiña arlote samarra iruditurik osoago bat moldatu det Gipuzkoako 73 sagardotegiri bosna bertso jarriaz. Iruditzen zait zuen etxe ortarako moduko lana dala. Ortatik aurrera zuen esku nai dezutena egin eta besarkada bat.

Sagardotegi zale
gera euskaldunak,
kantua eta bertso
sarri jardunak.
Txotxeko garai ori
maitatzen degunak,
arrotzik ifiorre ez
danak ezagunak,
aiton txapeldunak,
gazte illedunak,
gonadun txukunak,
maite ditugunak;
danok adiskide ta
danok lagunak.

Gipuzkoan badegu
sagardoak aukera,
gose ta egarriak
kentzeko era.
Arrai eta okela
betiko legera,
borondatez gainezka
nagusia bera,
txotxaren aldera,
bere jokaera,
eskubi-ezkerrera,
beti upelera;
zorionan parera
ibiltzen gera.

Txomin Garmendia
Etxe-Ondo, 4-2^a Ez
20150 BILLABONA



Aduna

Sagardoaren etxea degu
Aduna'ko Aburuza,
emen pozetan jartzen dirade
anima eta gorputza.
Indartutzen da espiritua
indartutzen da izkuntza;
onuntz etortzeko Jaun zerukoak
egin deigula laguntza.

Sagar onaren zumoa degu
sagardoaren diz-diza,
txorroak kristala jotzen dunean
daukan txinparta ta pitxa.
Sagardotegi aueri esker
degu orrelako ditxa;
Euskalerrria zer litzake gaur
sagardorik ez balitza?

"Au ona dago da beste ortan
zer moduzkoa ote da?"
Basoa artuz saillean jarriz
upeletik upelera.
Ondorenen tortilla, bakaillo
edo berdin okelera;
mundua zero biurtutzeko
eskuan degu aukera.

Amaika illabetez zabalik
da itxita abenduan,
zorionean onera bide
noizbait ikasi genduan.
Gauza eder da zoragarriak
izango dira munduan;
jakin nai nuke txoko oberik
izadi onek nun duan?

Gose-egarriak kenduta bapo
jartzean sagardotegiz,
bere gaiñean aukera on bat
eskutan daukagu berriz.
Baldin neurria artu ezkerro
pasatu gabe geiegiz;
etxera iñor joan ez dedin
kafe ta koparen premiz.

2012'ko Otsaillean

Txomin Garmendia



Aduna

Aburuzaren aldamenean
aurkitutzen da Zabala,
esan bearrik ez dago noski
biak auzoak dirala.
Aitortu bear bietan ere
ondo artuak gerala;
ikusten da batetik bestera
alde sundirik ez dala.

Mesede baten premiz bazera
lasai eskatu Ramoni,
berekin ez du zenbaitek ainbat
zakarkeri ta armoni.
Zabala ezezik altua ere
deitu bear gizon oni;
geiago ezin esan nezake
iritsi ortan nago ni.

Arrigarria nagusi jaunak
dadukan borondatea,
nola eguardiz ala illuntzez
beti zabalik atea.
Gauz ederra mokadu bat janda
upel ondora joatea;
Zabalarenean erreza degu
zoriontsu izatea.

Etxeko sagarrez etekin asko
sagar-urtea danean,
emaitzak sarri jasotzen ditu
saiatzan danak lanean.
Zabalarenean aukera dago
janean da eranean;
adiskidea ikusiko dezu
etortzen zeradenean.

Gose-egarriak naiz ondo kendu
ezin aspertu txotxean,
baiña kontu izan gidari zeinek
joan bear dun kotxean.
Ertzaiñen batzuk egon litezke
kamioaren ertzean;
merezi du ta tasixi deitu,
bestela autobusean.

2012'ko Otsaillan

Jesús Rameriz

ZALBIDE SAGARDOTEGIA T1 = 943652176

Abaltzisketa

Amezketatik abiatuta
Abaltzisketa baiño len,
gose-egarriak ondo kentzeko
lekua dago Zalbiden.
Berezia, arraia parrillan
ikusiteke emen;
ortik aurrera zedorrek pentsa
zeiñen zalea zeradem.

Eguneroko apari orrek
ezin lezake utsegin,
urtarrilletik urria arte
artu liteke atsegin.
Ostegun, ostiral eta igandez
bazkariarekin berdinean;
aukera danak ikusten dira
bat pozik gelditu dedin.

Aragi zale baldin bazera
aseko zera aragiz,
eta txotxeko sagardo ori
aukeran daukazu berriz.
Nai dan guzitan ez da gertatzen
olako sagardotegiz;
obe genduke jatetxe danetan
Zalbide bat bandil balitz.

Larraiztik ere joan-etorri bat
ez da gaizki etorriko,
Andremariai otoitz egiñez
jarririkan belauriko.
Munduan ezin gindezke bizi
beti sagardotegiko;
Ama on baten laguntza berriz
zeiñi etzaigu komeniko?

Bost bertso auek moldatu ditut
borondate eder baten,
Zalbide ontako adiskideak
zerbait ikasi dezaten.
Upel maiteak ikusten degu
nola portatzen zeraten;
aurreruntz ere jarrai zazute
mama gozoa ematen.

2012'ko Martxoan

Francis Comedias

apinepe

Amaika illabetez zabalik
da itxita abenduan,
sagardotegi ontara bide
ondo ikasi genduan.
Beste lekutan ez dagon zerbait
etxe onek nola duan:
txotxean bost bat erari klase
borondate ondraduan.

Apal ondoren artu litezke
kafea eta patarra,
beste nasketa geiagore bai
ez degu ori bakarra.
Or sortzen dira pakea eta
maitasunan irriparra;
mundu astun au arindutzeko
bada zerbaiten bearra.

Sagardo, ardo, beltz eta gorri,
txanpaina tarten dutela,
batek zer duan gogozkoena
zai izango du upela.
Era berean serbitzen dute
arraia edo okela;
da iñor premiz gertatzen bada
aldamenean otela.

Sagardotegiz oroitzen da bat
Aginaga entzunikan,
garai batean nork esan emen
orrela bear zunikan?
Nai dan guztitan ez da aurkitzen
olako ondasunikan;
etxe onetan triste dagonak
ez dauka osasunikan.

Norbait gertatzen baldin bada or
gose-egarrrik kendu premiz,
Aginaga'ra joan dedilla
aitortuko diot egiz.
Aspalditxoan jabetu giñan
auzo eder onen alderdiz;
len angulakin zan pamatua
da orain sagardotegiz.

2012'ko Otsaillean

Txomin Garmendia



IZETA SAGARDOTEGIA T= 943131693

Qui

Aiako Izeta sagardotegi
ta jatetxe berezia,
etxe onet~~xe~~ek bixitatxo bat
ondo dauka merezia.
Errespetoko jendea degu
lanean ondo ezia;
jan-eraketik azkar daukazu
eskatzen dezun guzia.

Ongi etorria egingo zaizu
sartu orduko barrura,
jende on onek azkar artzen du
serbitutzeko ardura.
Eta iristen geradenean
pagatutzeko ordura;
berrizko ere pozik jartzen da
bein etorritzen dan ura.

Izetari buruz beste gauza bat
badago esan bearra,
plaza-gizonen seaska degu
ez da jan-eran bakarra.
Besteak-beste arri jasotzen
oso goien dute marra;
emen txuletak edo sagardok
nunbait badute indarra.

Sagardo ederra izango dezu
nola txox ala botilla,
ardotik ere nai dan aukera
da egon zaitez trankilla.
Jaki goxotan ikusi leizke
kazuela ta parrilla;
nora demontre joan bear degu
leku obearen billa?

Txoriak kantuz asiko dira
egun sentia orduko,
kukua ere San Pedrok arte
ez da asko ixilduko.
Bertsolariak illuntze aldera
jarri litezke kantuko;
Izeta ontara etortzen dana
iñoiz ez da damutuko.

2012'ko Maiatzean

Teo's Comedia

Olga

Xaxota dago Aiako parten
Oriotikan txit gertu,
sagardo zale baldin bazera
etxe au ezin baztertu.
Nagusia baiño gizon oberik
ezin liteke agertu;
sagardotegi au zapaltzen dunak
izango du zein eskertu.


Orrela gerta oi giñan noski
soiñu, dantza ta bertsoa,
da txandan-txandan upel ondora
luzaturikan besoa.
Zedorrek nai dezun ~~ain~~bestetan
beteko dezu basoa;
nai dan guztitan ez da billatzen
olako paradisoa.

Euskaldunaren zoriona da
janean da eranean,
besteak-beste etxe onetan
gertatutzen geranean.
Kantuan edo jendea dantzan
asi bear azkenean;
nagusi jauna soiñua artuta
lanean asten danean.

Pranko alditan egon izan naiz
gauzak ezin sinisturik,
etxe onetan naiz il da egon
nola jartzen dan pizturik.
Ez da sumatzen kezkarik eta
gutxiago arriskurik;
etxerako garaia etortzen dala
ez dago beste tristurik.

Azken tragoa komeni da-ta
ezin aspertu txotxean,
erten bearra berriro ere
itzulitzeko pozean.
Gerta gaitezela gaur bezela
egarriz eta gosean;
gozamen auxe izan dezagun
berriz onuntz etortzean.

2012'ko Otsaillean



OLAGI SAGARDOTEGIA T1=943887726

OLAGI

Goierrin ere zorionean
jatetxe-sagardotegi,
Altzagara etorri ezker
bertan daukagu Olagi.
Urte guztian zabalik dago
ala nai genduke segi;
baldin neurria erabilliaz
ezer ez degu geiegi.

Borondatezko upel maiteak,
bertan nai ainbat erari,
sagastiaren etekiña da,
zorretan gaude berari.
Triste antzean datorrena ere
errez asten da kantari;
beste nunbaiten gertatzen al da
emen ainbeste mirari?

Lekua ere berekin badu
eunda ogei lagunentzat,
upel guztiak aukeran daude
etorritzen danarentzat.
Euskaldunaren oitura zarra
artu dezagula aintzat;
bizi-pozaren sustraia dala
neri iruditutzentzat.

Basoa artu,txotxa irikiz,
luzaturikan besoa,
sarri ez dago zailla billatzen
zoriontasun osoa.
Emen bai pozik babesten dala
gure izkuntza gaixoa;
gorputz da anima bezela dira
sagardoa ta bertsoa.

Alkartasun da pake ederrean
upeletik upelera,
nola arraia ala okela
maiean dago aukera.
Nai duten danak ez dute noski
ola bizitzeko era;
agur nagusi,agur etxeko,
berriz etorriko gera.

2012'ko Maiatzean

Teo mis Cu meendez

Andoain

Gaztañaga sagardotegi au
era berean jatetxe,
gose-egarriak ondo kentzeko
aukera dago ementxe.
Sagardotegitikan aparte
jan-eranan nai dan klase;
aurreruntz ere jarrai dezala
orain arte bezelaxe.

Aurrerapenan bidez gabiltza
iñoiz baiño aurrerago,
gure eskura gaur daduzkagu
ez genitunak lenago.
Da etxe oni begiratuta
ezin eskatu geiago;
aukera gauza ederra degu,
ori Gaztaiñagan dago.

Gaztañagaren izen ederra
beti dijoa goruntza,
zorionean egin genduan
etxe onem ezagutza.
Animak ere kalterik ez du
indartzen bada gorputza;
biak maitatzen dituan ura
etorri bedi onuntza.

Otz-beroaren giro ederra
sartu orduko barrura,
jan-eranean bakarrik ez da
etxe ontako ardura.
Gero bakoitzak eskatuko du
komeni zaion modura;
itzuli gabe ezin gelditu
bein etorritzen dan ura.

Etxe onetan ez da baztartzen
ez zaar da ez gazterik,
ez pentsa gero kopet illunik
Gaztañagan ikusterik.
Alai jarrita bai makiñabat
aurrez zeudenak tristerik;
jan-eranak on egin dezala,
nik ezin esan besterik.

2012'ko Otsaillan

Txomin Garmendia



Cindoaín

Urte guztian zabalik dago
Mizpiradi deritzaio,
txotxaren pozez jendea pranko
bertara bildutzen zaio.
Sagardotegi au zorionez
egun batean zan jaio;
da geroztik onuntz etortzea
noranaira baiño naio.

Atsedentzeko igande gauez
izaten degu itxita,
gaiñontzekotan goiz-arratsaldez
egin liteke bixita.
Mendiko aize garbia artuz
badago milla grazita;
sagardotegi onek izen ona
ondo dauka merezita.

Arkumea edo txerrikumea
nai baldin badezu berdin,
ortako aurrez teleponotik
bearko dezu itzegin.
Gu euskaldunak jan-eranean
artutzen degu atsegin;
Mizpiradi ontan saiatzen gera
ezer paltatu ez dedin.

Nagusi jaun da serbitzailleak
artutzen duten ardura,
etxe onetan bat sartutzen da
zorionaren ordura.
Aproba egin, esango dezu
nik esan dedan modura:
itzuli gabe ezin gelditu
bein etorritzen dan ura.

O upel eder zoragarriak
zein maitatuak zeraten,
banatzen dezuten zoriona
ez da erreza esaten.
Aurreruntz ere jarrai zazute
mama gozoa ematen;
gu egarriak kendu artean
segiko degu eraten.

2012'ko Ekaiñean

Xorruin Jermendia

SARASOLA SAGARDOTEGIA Tel=943690283

Astiasun

Sagardotegi eder askoa
Astiasun Sarasola,
aitortu bear amaika aldiz
pozik egonda nagola.
Mendi-mendian aurkitutzen da
orrek ez dio ajola;
oraindik emen ikusi leike
lege zarreko eskola.

Txotxa atereaz txorrot ederra,
gari kolore apaiña,
upel batetik bestera beti
aldea badago baiña.
Sarasolara etorri ezkerro
artu liteke nai aiña;
mendiko aize sana eta
sagarran zumu bikaiña.

Anizeto da nagusi zarra
beretzat nere omena,
orain semeak artua dauka
negozioko ordena.
Baiña sarritan beteko dute
aitak esaten duena;
eskola ona bai da urteak
erakusten digutena.

Txotxaren bidez gertatutzen da
konta ezin ainbat mirari,
eskerrak eman bearren noski
aurkitzen gera berari.
Txoriak eta kukua ere
jartzen dira bertsolari;
ezin arritu gaiñontzekoak
asten bagera kantari.

Lenen pekatua Paradisoan
gendun Adan da Ebaren,
debekatutako sagarra jan da
gero zigorra beraren.
Sagardo zoragarri au orain
sortutzen da sagarraren;
txarrik ez dala onik ez dunik
aitortu bear da emen.

2012'ko Otsaillean

Francis Camerling

ZAPIAIN SAGARDOTEGIA TL= 943-330033

Autoparala

Izen batekin bi negozio:
Zapiain onen otsera,
triste aldian dagoan ura
sartu ere bai pozera.
Sagardotegi aundia ba bat
bestea txiki antzera;
gauza bat dakit,aseko zera
zalea baldin bazera.

Arrigarrizko ontzi saillak or
orma baten baztarrean,
nola ez poztu ainbat iturri
ikusirikan urrean?
Usai aparta nabaritzen da
arrai,aragi errean;
zutikan dago jan-eran dana
lengo oitura zarrean.

Aundi onetan amaika bider
noski izanduak gera,
iñoiz etzaigu damutu berriz
onuntzako etorrera.
Erritik erten,kamio ertzean
aurkituko degu bera;
bodega on bat nai duan arek
eskuan dauka aukera.

Txotxetik-txotxera bein genbiltza-
eta itzetik-itzera, la,
adiskide bati entzun niona
emango det aditzera:
"Gu urrutira joaten gerade
bodegak ikusitzera,
orretarako etor gaitezen
Zapiain bixitatzera".

Iñor bada-ta ibilli zale
izango da euskalduna,
da afan aundiz kontatzen degu
kanpon ikusi deguna.
Da ez dedilla iñor damutu
urrutietara juna;
geiago maite bear genduke
etxean dadukaguna.

2012'ko Martxoan

Tomás Bermúdez

GARTZIATEGI SAGARDOTEGIA Tl=94 3469674

Ortizlanja

Gartziategi sagardotegia
ez degu leku arrotza,
esan liteke etxe onetan
saldutzen dutela poza.
O zenbat aldiz alaitu degun
triste gendukan biotza;
talde txikiak gozatutzeko
ain da toki aproposa.

Urtarrillaren erdi aldetik
apirillan azkenera,
txotxaren billa ibilli leike
upeletik upelera.
Bat ona eta bestea ohea?
bakoitzaren arabera;
etxe ontara etorritzean
orrela alaitzen gera.

Larunbat, igandez bazkariari
ematen zaio baietza,
igande gauetz itxitzen dute
bakoitzak pentsatu beza.
Txotxetik txotxera eta apariz
eguneroko laiñeza;
leku ohea billatzen beintzat
ez da egongo erreza.

Bertsotan ere egin lezake
abildadea duanak,
erantzun nai ta ezin erantzun
beste batzurentzat lanak;
Danantzat berdin ez dira izaten
sagardoaren emanak;
izketan ere luzitutzen du
buru argia daukanak.

Sagardotegira etorri gera
giro onan maite-miñez,
noiz sartu giñan badakigu guk
noiz joango geran jakiñ ez.
Iñoiz gertatu izandu gera
kargak eraman eziñez;
ori ez degu arritzekoa
ainbeste trago egiñez.

2012'ko Apirillean

Xomis Garrodero

SARASOLA SAGARDOPEGIA

T1=943555746

Ortiz/Amela

Sarasola sagardotegia
eroritzen da grazitan,
bazkari-apari zabalik dago
urteko egun guzitan.
Sagardotegitik aparte ere
ain janari berezitan;
etxe onetan dagon aukera
ikusitzen da gutxitan.

Zer gozamena urte guztian
txotxa aukeratu dago,
nagusi auek otz-beroekin
izan bai zuten ajola.
Era ortara sagardo txarrik
ez luke bear iñola;
gauz ederra da upel aundi bat
mama ona dariola.

Berreunda berrogeita amar
lagunentzako lekura,
sartu ezkerro artuko dute
serbitutzeko ardura.
Ertetzekoan iritxitzean
pagatutzeko ordura:
esango dezu, "merke jan degu
errege baten modura".

Era ortako aurrerapenik
etzan izaten lenago,
zer ikusteko ote gaude gu
urte batzuk geroago?
Etxe onetan ikusten danaz
oso arriturik nago;
aukera gauza ederra da-ta
ori Sarasolan dago.

Gaur bezin sagardo onikan
etzan izango sekula,
aitortu bear garbiketako
urare eskax gendula.
Gaurko tolarez pertsona batek
amarrena egin dula;
emaiz oriek gozatutzeko
Jainkoak lagun deigula.

2012'ko Apirillean

José María Bermúdez

IPINTZA SAGARDOTEGIA T1= 688811724

Osasunare

Urte guztian zabalik dago sagardo ederra txotxean, igande gauez da astelenez beintzat gertatu ezean. Sagardotegitik aparte ere jatetxe batem klasean; Ipintzatikan etzera ertengo egarriz eta gosean.

Adiskidea nik ezdadukat zu mindutzeko usterik, sagardo onek poztuko zaitu lendik bazaude tristerik. Arrautza, arrai eta aragi ez da paltako postrerik; tripa zorriak ondo kentzeko zer bear degu besterik?

Eunda berrogeita amar lagun berekin artzen dituna, ikusi orduko begiak pozten dituan gela txukuna. Jan-eranean osatzeko da etxe ontako jarduna; aukeran aberastasuna degu Ipintzan dadukaguna.

Bat jarri leike bertso berri edo kantu zarrak abesteko, txotxeko ori ederra degu eztarria babesteko. Ipintza ezagututzen duna ez da jarriko uzteko; leku oberik bai ote dago pobrea aberasteko?

Osasungarri izandu bitez ondo jan da erateak, gutxi dirade sagardotegiz etorri leizken kalteak. Berriro maite nai badituzu emengo upel beteak, Ipintzan zabalik izango dira leioak eta ateak.

2012'ko Apirillean

Fernán Garmendia

BEREZIARTUA SAGARDOTEGIA

TL= 943555789

Qstia 2012/12

Astigarragan izen aundi bat
degu Bereziartua,
sagardotegi munduan beintzat
aspalditxo indartua.
Jan-eranetik aukera **ia**go
ori gauza ziaartua;
iñori apenas damutu **zaion**
onuntz bidea artua.

Eunda ogei lagunentzat leku
bertan daukagu oparo,
asko bezela igande ta jai
etxe au itxita dago,
Larunbatetan bazkaltzekore
aukerik asko badago;
etorri zaitez maiatz ederra
bukatu baiño lenago.

Urtarrillaren erdi aldetik
maiatzan azkena arte,
jende mordo bat ez da izango
upel ondotik aparte.
Etxe onetan dagon aukerak
auxe esaten didate:
"Gose-egarriz onuntz etorri,
aseta joango zerate".

Iparraldeko bidea artu
begiratu eskubira,
ziaartuago izatekotan
amaseiko zenbakira.
Zalantzik gabe basoa artuz
lenen pausoa txirira;
ondorenean exer-tokira
upel zarrairi begira.

O sagarraren zumu ederra
daukazu upel danetan,
esan liteke zeru puska bat
dagola etxe onetan.
Tripa-zorriak kentzeko asmoz
baldin bazera benetan;
etzerade ez etxeratuko
etorritako penetan.

2012'ko Martxoan

Ixomin Gamendia

OIARBIDE SAGARDOTEGIA

Tl=94 355 3199

Asistia 15/10

Sebastian da nagusi jauna
gizon borondatezkoa,
sagardogille bezela berriz
txukuna ta legezkoa.
Mesedetxo bat eskatuta ere
ezin eman ezezkoa;
guziak ondo ikusi naia
nola duan berezkoa.

Urtarrillaren erdi aldetik
apirillan azkenera,
Oiarbide ontan gozatu leike
upel batetik bestera.
Egarri aundirik ez bada ere
errez jartzen da txotxera;
uste ez dala alaitasun bat
sortutzen da biotzera.

Kintoak gera, ni bezelaxe
gaur dago naiko zartua,
sasoi ederra zuan garaian
pasara asko artua.
Orain kanpoa baiño naiago
maite etxeko tratua;
bizitza seguratu danean
askorengan gertatua.

Oiarbide au ezagun dunak
emen du zeletasuna,
eun lagunentzat lekua dago
eta erosotasuna.
Bakallaoa saltsa berdean
dagon berezitasuna;
ortatik kanpo eskatu zazu
geien gustatzen zaizuna.

Oiarbidetik joan-etorri bat
ez ote du merezita?
Bertan aurkituko bai ditugu
ainbat gauza berezita.
Larunbatean bazkaldu leike
da igandean itxita;
gaiñontzeko egun guzitan
egin liteke bixita.

2012^oko Martxoan

Tomás Gamareda

ERREZOLA SAGARDOTEGIA T1= 608143332

Artzaneak

Urte guztian zabalik dago
Errezola deritzaiona,
txotxaren pozez jendea pranko
inguratutzen zaiona.
Tripa zorriak kentzeko berriz
aldamenean mai ona;
etxe onetan aukeran degu
batek nai dun zoriona.

Igande gauez da astelenez,
eguardiz dago itxita,
gaiñontzekotan etorritzeko
etzaitez egon etxita.
Irureun lagunentzat lekua
ondo dago berezita;
sagardotegi onek izen ona
ondo dauka merezita.

Arkumea edo txerrikumea
nai baldin badezu berdin,
ortako aurrez teleponotik
bear zenduke itzegin.
Gu euskaldunak jan-eranakin
artutzen degu atsegin;
Errezola ontan saiatzem dira
ezer paltatu ez dedin.

Nagusi jaun da serbitzailleak
artutzen duten ardura,
etxe onetan bat sartutzen da
zorionaren ordura.
Aproba egin esango dezu
nik esan dedan modura;
itzuli gabe ezin gelditu
bein etorritzen dan ura.

Aurreruntz ere jarrai orrela
otupel mañtagarriak,
zuen ondoan kendu ditugu
gose eta egarriak.
Txoko politak oraindik ere
baditu Euskalerrriak;
besteak-beste iraun bezate
gure sagardotegiak.

2012'ko Ekaiñean

Francis Garmendia

MENDIZABAL SAGARDOTEGIA Tl= 943555747

Asi-jana ja

Mendizabal au juzkatu leike
edozein jatetxen pare,
sagardotegi bakarrik ez da
aukera geio badaude.
Itxita berriz igande gauez,
astelena baita ere;
lanerako ez da gogorik noski
atsedenik artu gabe.

Sagardo langintzan asi giñala
ia berrogei bat urte,
da geroztikan egarri pranko
upel auek kendu dute.
Nai dan guztia gure naiera
gaur'e ematen digute;
ondo giñake aurreruntz ere
ala segiko balute.

Berreunda berrogeita amar
sartu leiken jende pilla,
urte guztian nai bada txotxa
edo nai bada botilla.
Alako lekun dagolarikan
patxaratsu ta trankilla;
pakea zer dan jakin nai duna
onuntz etorri dedilla.

Nai baldin bada bazkari eta
nai baldin bada apari,
Mendizabal nik juzkatutzen det
zorionaren atari.
Sagardo kanpo eskatu leike
beste edozein erari;
milla aukera jartzen zaizkio
onuntz etortzen danari.

Ainbeste upel putzu ederrez
danak alkarren ondoan,
ikusi utsez ainbeste gauza
sortzen zaizkigu gogoan.
Jendea goibel etorri oi da
baiña oso alai joan;
bein etortzen dan arek badaki
Mendizabal nun dagoan.

2012'ko Martxoan

Jesus Camacho

MINA SAGARDOTEGIA Tl=94 3555220

Ostiañe

Urtarrilletik apirillera
jendea pozik txotxera,
eunda amar lagun sartuaz
sagardoan babesera.
Bakallaoa saltza berdeaz
izan liteke asera;
ondorenean txuleta ederra
goseak baldin bazera.

Sagardo egarriz gertatutzean
Minaz oroitzen gerade,
adiskidea nere esanaz
zu jabetuko zerade.
Euskaldun ona beti izan da
sagardoaren mirabe;
etxe ontara sartu ezker
penak aztutzen dirade.

Denbora asko ez dezu pasako
gauzak ezin erabakiz,
aukera ederra nola dagoan
bai erari ta bai jakiz.
Astigarragara etorri leike
Mina ikusteko aitzakiz;
Txoritokieta bidean da
berrogeita amar zenbakiz.

Jan-eran ondo egingo dezu,
gaiñera ez da garesti,
pagatzekoan arrazoa
emango didazu noski.
Danak izketa gozo ederrez
berdin bertso ta abesti;
era onetan baldin bagabiltz
ez gerade bizi gaizki.

Beste bat arte adiskidea,
agur egin etxe oni,
geure buruan jabetzan ere
izan bear degu geroni.
Baiña betiko agurtutzea
iñori etzaigu komeni;
berriz etorriko zeratela
ortan ziartu nago ni.

2012'ko Apirillean

Xomis Etxemendi

IRETZA SAGARDOTEGIA

Artista

Oialumeko auzoan dago
deritzaiona Iretza,
sagardotegiz gozatutzeko
ez da leku andrebesa.
Geiago zerbait badegu noski
etxe onek dun babesa;
jende askori damutzen zaio
lenago etorri eza.

Begiak ere gozatzen dira
ikuspegi edo artean,
artistan batzuk ez dira ibilli
noskioso apartean.
Maiean jaki goxoak eta
trago ederrak tartean;
zerua ere ez da urruti
emen gabiltzan artean.

Sagardotegiz aparte ere
daude milla komenentzi,
jatetxerikan onenetatik
arturik ainbat erentzi.
Batek zer zaletasun dadukan
ura bear du berezi;
bestela damu izan lezake
gaur,biar eta etzi.

Ospaketarik aundienetako
nai dan ainbesteko gelak,
serbitzaillean ardurak berriz
ez dira izango motelak.
Zure nai ori aseko dute
arraiak eta okelak;
da egarria kendutzeko zai
aukeran daude upelak.

Kafe-patarrak etortzen dira
postrean ondorenera,
beste zeozer nai bada ere
emen badago aukera.
Nai dan guztiak ez dute izan
ola bizitzeko era;
makiñabatek esaten degu,
"Berriz etorriko gera".

2012'ko Maiatzean

Fernis Comandor

[Faint signature]

LARRARTE SAGARDOTEGIA T1=94355647

Castellanos

Astigarragan sagardotegia
deritzaiona Larrarte,
iñork etorri nai badu beintzat
ez dago oso aparte.
Askok maitatzen degun txokoa
sagardo ona bitarte;
zerbaiten palta **sumatutzen da**
onuntza etorri arte.

Gorantza danak ez dira noski
izango upel batenak,
bestela alperrik beteko ziran
bere ondoan daudenak.
Probatu zale nola geraden
emen biltzen geradenak;
askotan zail da erabakitzen
nun diran trago onenak.

Urtarrillaren ogeita bitik
maiatzan bigarrenera,
Larrarte ontan sartu gindezke
lekurik ederrenera.
Apariz kanpo larunbat, igandez
dago bazkaltzeko era;
adiskidea zedorrek pentsa
bear ontatik aurrera.

Janarietan egon liteke
sagardoan gora-bera,
bakalloa jan edo aragia
konparazio batera.
Gazi puntua daukatenakin
geiagotan upelera;
kontuak kontu gose-egarriak
kenduta ertengo gerra.

Etxe onetan ez bedi palta
jatekoa ta erana,
adiskidea sinistra zazu
ortan saiatzeko gerana.
Aurrerakore badago emen,
gaur ez da bukatu dana;
ziartu nago zu berriz ere
onuntz bilduko zerana.

2012'ko Apirillean

Tomás Garmendia

ETXEBERRIA SAGARDOTEGIA TI=94 3555697

Castellaneja

Urtarrillaren erdi aldetik
maiatzaren aurrenera,
aurre enkarguz bakallaoa
jarririk saltsa berdera.
Etxe onetan sartu gindezke
lekurik ederrenera;
zer gertatzen dan esan bearrik
ez dago ortik aurrera.

Etxeberria dauka izena
baiña au da aspaldikoa,
irurogei urtez ezagutzen du
giro sagardotegikoa.
Istori zarrak berritzekore
etortzea da naikoa;
obeto esanda Santiago Enea
deritzan basarrikoa.

Berreun bat lagun artu litezke
izanik ainbeste toki,
da upeletikan upelera
ibillitzeko egoki.
Batean ona, besten ohea,
berdiñik ezin eduki;
Etxeberria probatu ez dunak
zerua zer dan ez daki.

Esan bearrik ez, aukera dala
eguneroko apariz,
larunbatetan eta igandez
osatu leike bazkariz.
Igande gauez itxitzen dute
atsedendutzeko aldiz;
pertsanak ez luke jarraipenik
atsedenikan ez balitz.

Sagardo zale adiskidea
zuretzako eskenean:
eskerrik asko guk eman bear
Jainkoaren izenean.
Damurik ez badaukazu beintzat
etxera zoazenean;
ateak zabal izango dira
etorri nai dezunean.

2012'ko Apirillean

Xosé María Garmendia

Art. 1.º

Zorionean etxe onetan
artu badezu ostatu,
gose-egarriak baldin bazaude
etzaitezela kezkatu.
Txaro deritzan sukaldariak
nola lezaken prestatu;
iñoiz etzera damutuko-ta
gusto dezuna eskatu.

Nai baldin bada botillan eta
nai baldin bada barrikan,
txotxak dadukan edertasuna
ez bai dago alperrikan.
Edo ardorik nai bazenduke
bada zumu ederrikan;
zorion billa ez da izango
iñora joan bearrikan.

Etxe onetako jan-eranetan
beti zerbait berezi da,
lanaren bidez goi mailletara
jatetxetan iritsi da.
Txaro Zapiain onen izena
aspaldin asko azi da;
sagardo artean jaio zan eta
sagardo artean bizi da.

Amaika aldiz esango dezu:
"Emen bai ondo gaudela",
apostoluak noizbait Jesusi
esan zioten bezela.
Txabolik gabe bertan daukagu
ostatu edo otela;
kontuan izan sagardoaren
iri-buruan zaudela.

Ezer ez degu maitatzen noski
ezagutzen ez danean,
baiña probatuz jabetu zera
nik daukaten esanean.
Da Txarok auxe esango dizu
etxera zoazenean:
"Eskerrik asko, berriro etorri
zedorrek nai dezunean".

2012'ko Martxoan

Tomás Giménez

ASTARBE SAGARDOTEGIA Tel= 943-551527

Antoni

Astarberetzaz itzegiteko
ez naiz egongo pezkizan,
lenengo aldiz sagardotegin
etxe ontan sartu nintzan.
Geroztik irurogei bat urte
joanak badira bizitzan;
orduak artu nuan karreraren
damurikan ez det izan.

Geroztik gogoan izaten det
Mendiola basarria,
nolatan eman kendu genitun
gosea ta egarria.
Bertsotarako ura sasoi
eta sagardotegia;
nik izan dedan suertea ere
ez ote da geiegia?

Orduko gestuak etziran noski
gaurkoaren antzekoak,
berrogeita zazpina pezeta
genitun pagatzekoak.
Jaun zerukoai esker beroak
daduzkat zuzentzekoak;
talde artatik bi bizi gera
il ziran gaiñontzekoak.

Gaur'e etxe ontan ase litezke
gorputzaren kutixiak,
urtarrilletik iraila arte
txotxa, upel da ontziak.
Bakallo, pipar da gaiñontzeko
aukeran dauden graziak;
ziartu itzuliko dirala
etortzen diran guziak.

Astarbe ontan aukeran dago
borondatezko upela,
txotxa irikiz txorro ederra
gure naiera dutela.
Jateko berriz bakallo-tortil
arraia eta okela;
aurreruntz ere jarrai zazute
orain artean bezela.

2012'ko Martxoan

Txomin Parmendis

LIZEAGA SAGARDOTEGIA

Tl= 943-468290

Cestujana

Etxe onek dun eginkizuna
ezin da jarri auzian,
urtarrilletik apirillera
txotxak berez dun grazian.
Andik aurrera botilletatik
eder udara guzian;
sagardo bidez etorritzen dan
alaitasun nagusian.

Bakallaoa saltsa berdean
edo txekorran saietsa,
bakoitzak zer dun gogozkoena
uraxe eskatu beza.
Txotxetik-txotxera errez artzen da
alaitasunan laiñeza;
leku ohea billatzen beintzat
ez da egongo erreza.

Larunbatetan berriz aukera
iñork nai badu bazkaldu,
eguna jai-ta sagardozele
danak arrazoi ez al du?
Egun eder bat igarotzeak
ez dezake ezer galdu;
naigabe danak uxatu leizke
da bizi-poza ugaldtu.

Aspaldi samar izan genduan
etxe onen ezagutza,
zarra zegoan da egin dute
makiñabat aldakuntza.
Lizeagaren izen ederra
beti dijoa goruntza;
sagardotegiz poztu nai duna
etorri bedi onuntza.

Opor da abar gaur munduari
ematen diogu jira,
utsa litzake gure ametsak
ondo ertengo balira.
Nere gisara esango dezu
joanez sagardotegira:
"Olako gauzak emen egonda
zertan goaz urrutira?".

2012'ko Martxoan

Xomin Carmeada

IRIGOIEN (HERRERO) SAGARDOTEGIA Tl= 943-550333

Castifans 10

Irigoien edo Herrero ura
guk ezagutu Ergobin,
Manuelekin izan genduan
konta ezin ainbat atsegin.
Errespetoko gizona beti
danairi ondo itzegin;
erdi-txoron bat gertatzen bazan
jakiten zuan zer egin.

Irigoien ontan ez dadukagu
sagardo ona bakarrik,
nola arraia ala aragi
leku onetik ekarrik.
Ondorenean ez da paltako
kafe eder da patarrik;
ontatik aurrerakoa berriz
ez dago esan bearrik.

Orain semeak etxe berri au
ez du egiña nolana,
pake santua dagon lekuan
oso dotore ta alai.
Aitari orain etorri zaio
atseden artzeko garai;
zartzaro on bat merezia du
berak irabazi du bai.

Etxe ontako ainbat alderdi
ederrak dira benetan,
orrelakorik ez da ikusten
joandako leku danetan.
Txorian kantak ere aukeran
etxean aldamenetan;
gizakianak asi ere bai
aik ixiltzen diranetan.

Txotxean ezin ibilli danak
eska lezake botilla,
bat nora joan ote liteke
aukera obean billa?
Begiak ere gozatzen dira
zartagi eta parrilla;
zoriona zer dan jakin nai duna
onuntz etorri dedilla.

2012'ko Martxoan

Thomas Camerón

Astigarraga

Astigarraga'ra joan ezkerro,
zintzo sagardotegira,
aspaldi samar ikasi gendun
bidea Petritegira.
Upeletikan upelera-ta
berdin txiritik txirira;
Euskalerrian oraindik ere
oitura ederrak badira.

Urte guztian zabalik dago
nola txotx ala botilla,
beste iflora ezin leike joan
aukera obeam billa.
Arrigarritzko jendetza da au,
emen dagon upel pilla!
Gose-egarriak kentzeko leku,
ta ala izan dedilla.

Petritegira sartzen geranen
poztea degu erreza,
jende askori damutzen zaio
lenago etorri eza.
Janarietan neurri ederra
nola gazi ala geza;
legatz kokotea jateko ere
ez da leku andrebesa.

Astigarragak berekin dauzka
ogei bat sagardotegi,
nere iritziz onentxoena
izan leike Petritegi.
Gizon laurdena onuntz etorritz
jartzen da gizon da erdi;
akats txiki bat izatekotan,
askotan jende geiegi.

Ainbeste gauza esan litezke
Petritegiren gorantz, .
emengo tolare eta sagasti
bat ezin egon zalantz. .
Kafe ta kopaz musika ere,
nai duanak egin dantz;
Astigarraga txikiago zan
Petritegirik ez bazan.

2012'ko Otsaillean

Txomin Garmendia



ARTOLA SAGARDOTEGIA TL= 94 355 7296

Artola

Urtarrillaren amabostetik
maiatzaren lenengora,
Artola sagardotegi onetan
txotxean dagon denbora.
Basoa artuz nolaz ez joan
upel maitean ondora?
Egarriak kenduz alaitutzeko
sasoi ona izango da.

Astelenetik ostiralera
gauetan dago itxita,
larunbat eta igandeakin
bazkariz egin bixita.
Igande gauez berriro itxi
nunbait ala ikasita;
enkarguz ere antola leike
ainbat gauza berezita.

Eunda larogei lagunentzako
lekua daukagu bertan,
danok ikusten degun gauza da
ezin asi gezurretan.
Adiskidea lasai itzegin
akatsik bada ezertan;
konpianza baiño oberikan
ez dago mundu onetan.

Adiskidea zure aukeran
teleponoa arzazu,
andik itzegin da nai dezuna
ala iritsiko dezu.
Talde batekin pakean billa
ibilli zindezkela zu?
Leku askotan zail dagon ura
erreza jarriko zaizu.

Adiskidea sagardoakin
baldin bazaizu ajola,
etxe ontara etorri gabe
ezin gelditu iñola.
Sagardotegiko berriak'e
jakingo dituzu nola;
gogoan izan Astigarraga,
gogoan izan Artola.

2012'ko Apirillean

Tomás James de

BUENABENTURA SAGARDOTEGIA TTI=94 335 7322

Altzara

Etxe bakoitzak bere oiturak
txotxeko sagardoakin,
berezitasun aundi bat bada
Buenabentura onekin.
Otorduaren asera ori
nai bada karakolakin;
au da egia, gustoam aurka
ezin liteke itzegin.

Igande eta jai egunetan
izaten dute itxita,
larunbatetan bazkaldu leike
otsailletik asita.
Arrai, aragi aukeran daude
aurrez ondo berezita;
Buenabentura bixitatzea
ez ote du merezita?

Urtarrillaren erdi aldetik
apirillan azkenera,
nai ezkerro Buenabenturan
ondo ibilliko gera.
Basoa artuz jende taldea
upeletik upelera:
"Au ona dago, goazen bestera
or nolakoa ote da?".

Altzara bidean dan basarria
izenez Buenabentura,
eta jan-eran egin liteke
sagardotegi modura.
Ixtimatzen da jende on onek
serbitzeko dun ardura;
zein ez litzake pozik bilduko
onelako konbentura?

Nagusi jaunak guztiontzako
auxe dio azkenean:
"Eskerrik asko biotz-biotzez
Jainkoaren izenean.
Da suertea izan zazute,
pake ta osasunean;
gu emen gaude berriro etorri
zuek nai dezutenean".

2012'ko Apirillean

José Camacho

GURUTZETA SAGARDOTEGIA TL= 94 355 2242

Ostirala 7/12/12

Apirillaren erdira arte
txotxeko eginkizunak,
andik surrera botillan bidez
sagardoaren jardunak.
Astelenetik larunbatera
lan egiteko egunak;
bein etxe ontan sartu ezker
danok gerade lagunak.

Gurutzeta onek merezi ditu
konta ezin einbat lora,
sagardogintzan badaramazki
eun urtetikan gora.
Zenbat euskaldun bildu ote da
upel zar auen ondora?
etxe ontara sartu ezker
errez joaten da denbora.

Astigarragak daduzkan pamak
ez dirade geiegiak,
Gurutzetan' e ederrak dira
sagarraren iturriak.
Txorrota basoan puskatzen dala
makurturikan gerriak;
bizi-pozaren sustrai ditugu
gure sagardotegiak.

Astelenetik larunbatera
aparitako bixita,
ostiral eta larunbatetan
bazkaltzera iritsita.
eunda berrogeita amar lagunek
dana dute merezita;
igande eta jai egunetan
atsedentzeko itxita.

Emen geienak biziko gera
etorkizun ametsetan,
baiña bai al da zorionikan
mundu ontako gauzetan?
Sagardotegin triste dagona
errez jartzen da pozetan;
adiskidea nik esan dizut
zer daukazun Gurutzetan.

2012'ko Apirillean

Tomás Gamella

ALORRENEA SAGARDOTEGIA Tl= 943336999

Alorrenean

Astigarragan aurkitzen gera
sagardoaren irian,
Alorrenean bere izena
duan sagardotegian.
Urte guztian zabalik dago
bazkari ta avarian;
uste ez dala aurkitutzeko
zorionan atarian.

Idi onaren txuleta dago
janaritan berezia,
orregatik onuntz etortzea
etxe onek merezia.
Beste zeozer aukeratzeko
balidin badezu grazia;
txukun da garbi izango dezu
eskatutako guzia.

Irureun lagunentzako leku
badegu Alorrenean,
gose-egarriak ondo kentzeko
erarik jatorrenean.
Da betez ere txotxeko garai
berria datorrenean;
sagardoaren marmarra entzunez
izkuntzik ederrenean.

Kaleko otsik ez dago emen
ain da paraje trankilla,
txorian kantak izan ezean
dana inguru ixilla.
Upel ondota ezagutzen da
zein dan izketan abilla;
sagardotegia orrela zan da
alaxe izan dedilla.

Uste ez dan ura asi liteke
bertsotan edo kantari,
txotxeko iturri orrek badu
jaunak ainbeste mirari.
Penetan baiño ekin bearra
etxerako bideari;
"berriz etorriko gera" esanez
agur egiñez danari.

2012'ko Apirillean

Francis Peralta

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA T1=94 355 2938

Astigarriak

Zabaldutzeko urtarrilla-ta
itxitzeko apirilla,
bitarte ortan etorri leike
txiri eder orren billa.
Apirillan ogeita bin giñan
talde edo koadrilla;
arritu ere prozesioan
ura zan ura jende pill!

Apirillaren ogeita bia
aipatua det lenago,
talde ederra bildu giñan da
damaturikan enago.
Nerekin ziran lagunak ere
berdin au dute esango:
"Lenengo aldiz etorri gera,
azkena ez da izango".

Sagardotegiz ezin arritu
Astigarragan magalean,
sagardoaren iria degu
bere luze-zabalean.
Nor bait balego Oialume Zar
nun dagon jakin zalean;
izen bereko auzoan eta
Arozamena kalean.

Gu bazkaldutzen gertatu giñan,
maia etzegoan utsa,
asierako txorizo, tortilla,
bakalloa ta arrautza.
Ondorenean txuleta ederra
da postrearen laguntza;
gose-egarriak dagoan ura
etorri bedi onuntza.

Txotxan garaia bukatutzean
botilla ondorenean,
upelak ustu bearren daude
erarik jatorrenean.
Irakurlea jabetu zaitez
nere oraingo esanean;
Oialume Zar gogoan izan
egarritzen zeranean.

2012'ko Apirillean

Haris Capmedin

URBITARTE SAGARDOTEGIA Tl= 943180119

Ataun

Urteak ditun egun guztitan
zabalik da Urbitarte,
bazkaritan larunbat, igandez,
artu leikelarik parte.
Baldin gogorik izan ezker
ez dago oso aparte;
Ataunen eta inguruetan
zorioneko zerate.

Komeni zaizu etorritzea
egarriz eta gosean,
gero zoriona aurkituzeko
maiean eta txotxean.
Ezin esan dan alaitasun bat
nabari da biotzean;
bizi berri bat sortutzen baita
sagardotegi pozean.

Bakallo-tortilla eta txuleta
dira sagardotegiko,
noizik eta bein arraia ere
ez da gaizki etorriko.
Zu zenentzako zaletzen zeran
ura dizute jarriko;
etxe ontatik oroipen on bat
artu liteke betiko.

Kontu kontari, ainbat istori
bateko eta besteko,
emenez dago galerarikan
guztia irabazteko.
Estalpe oberik bai ote dago
gure oiturak babesteko?
Ordu batzuetarako benik
pobrea aberasteko?

Jarrai zazute sagar ematen
sagasti maitagarriak,
zuen bitartez kendu ditzagun
guk dauzkagun egarriak.
Koka-kolata antzeko asko
modako daude jarriak;
beste grazi bat berekin dute
gure sagardotegiak.

2012'ko Maiatzean

Tomás Zamindia

AÑOTA SAGARDOTEGIA T1=943812092

Azpeiti

Sagardotegi onen grazia
Añota deritzaiona,
beste etxe askorengandikan
nabarmenduta dagona.
Edozein pesta jartzeko ere
begiratutzen zaiona;
alde askotara iritsi leike
etxe ontan zoriona.

Janarietan bereziena
izan liteke **seziña**,
eta bein jaten asitakoan
jartzen dan ase eziña?
Sagardoa gogoz eratekore
ain da laguntzaille piña;
apenas iñor damututzen dan
onuntz jira bat egiña.

Berreunda berrogeita amar
lagun moldatu litezke,
jan-eraketik nai dan aukera
batek nai duan ainbeste.
Sagardoaz naikoa egindakoan
ardotik asi gindezke;
gizonak nora joan bear du
zorion geiagon eske?

Ganadu zarran txuleta berriz
emen daukagu modako,
arakin betek beste lan gabe
prestatuak onerako.
Berealaxe bat gertutzen da
bertso edo kanturako;
zer geiago eska bear degu
gure mundu **ontarako**?

Ainbat denbora pozik pasata
etxeratzeko penetan,
nunbait ez dago bizitzerikan
luzaro zorionetan.
Etxera bidea artuko degu
berrizko itxaropenetan;
beste ainbeste gerta dedilla
etorritzen geranetan.

2012'ko Apirillean

Tomás Carmendia

ARAETA SAGARDOTEGIA Tl=94 3362049

Donosti

Araeta ontan autsi ditugu
ainbat bigili ta barau,
emen dagoan edertasunak
ni beintzat lilluratze nau.
Eten gabeko serbizioa
berdin-berdin egun da gau;
sagardotegia baiño geiago
zerbait izango degu au?

Erri aundiak gertuan baiño
bera leku paketsuan,
au ikusita oroitu bear
zeru-lurren Jaun Altsuan.
Barrua emen lasaitutzen da
eta indartu zentzuan;
Araeta egin zuanak ere
ori pentsatuko zuan.

Ainbat ospaketa bertan ditugu
ezkontza tarteko dala,
kotxea uzteko arazo gabe
ain du inguru zabala.
Donostiko sailletan omen da,
legez izango da ala;
aitortu bear Lasarte, Usurbil,
pauso batera dauzkala.

Nai dan guztitan ez da ikusten
emen dagoan aukera,
jatetxe maillan exeri edo,
upeletik-upelera.
Zenbat modu dan orretarako
jabetu bedi norbera;
batak bestea errespetatuz
ondo ibilliko gera.

Tripa zorriak ondo kenduta
bat asi leike kantari,
txoriak eta kukua ere
emen dira bertsolari.
Jaungoiko onak egin dizkigu
guretzat ainbat mirari;
beste biderik ez det ikusten,
eskerrak eman Berari.

2012'ko Maiatzean

Tomás Zamudio

OLASAGASTI SAGARDOTEGI-JATETXEA Tf= 943213290

Jonaki

Aizkolari gisa Olasagasti
guk ezagutu genduan,
alako gaztea etorri zan da
danok arritu ginduan.
Onak asko izanak dirade
aizkolaritza-munduan;
aitortu bear oietako bat
bera nola izanduan.

Berrogeita amaizu urtekin
sasoiko daukagu bera,
gazte asko ezin iritsiaz
dabiltza bere parera.
Bentajak eman, jokoak egin,
ortan jartzen du aukera;
zardadeak ez dio erasan
orrekin arritzen gera.

Urte batzutan aizkolaritzan
bera izanik txapelduna,
belar ebate edo sega ere
maitea izandunaduna.
Ortik aparte idi ta itzai
plaza prankotan jarduna;
kirolerako jaioa degu
Igeldoko euskalduna.

Etekiñiken operoenak
izanik aizkolaritzan,
plazatik erretiratu baiño len
ostaleritzan asi zan.
Zartzarorako ere zerbaite
egitea komeni zan;
da plazatako irabaziak
etziran alperrik izan.

Jan-eranetik ondo osatuz
euskal giroa lekuko,
ori ikusi leikela emen
iñork ez du ukatuko.
Da Joxemari Olasagasti
izango degu gertuko;
kontuak-kontu onuntz etorria
etzaizute demutuko.

2012'ko Martxoan

Joxemari Olasagasti

Jonorki

Kalongen gozatu nai duan: ura
etor bedi Igeldora,
ikusiko du iritsi dala
zeruko ate: ondora.
Bistan bai ditu itsaso eder
ainbat mendi eta lora;
pena da baiña paraje ontan
azkar joaten da denbora.

Ondo dakigu sagardo fama
aunditutzen dijuana,
bera da gure barruak sarri
garbitutzen dituana.
Koka kola da gazte artean
gaur modako daguana;
ez da berdiña upeletikan
txotxak ematen duana.

Sagardotegi edo jatetxe
bertan eunka otordu,
zorionean paseak gaude
konta ezin ainbat ordu.
Jai gauean da astelenetan
itxitzeko dute kargu;
lana egiten duan pertsonak
atsedenare bear du.

Nola arraia ala okela
nai dan klasetara daude,
onuntz etortzen geranak berriz
ezti miazketan gaude.
Upelan borondatea dago
zure ta inoxidable;
zerua zer dan batek ez daki
onuntza etorri gabe.

Itsas aizea eta mendia
besarkatuta jolasten,
oiek orrela gure osasunak
ez du gutxi irabazten.
Baldin osgarbi baldin badago
ainbat jende egurasten;
Igeldon ordu batzutarako
ez da zailla aberasten.

2012'ko Otsaillean

Jonorki

BARKAIZTEGI SAGARDOEGIA Tel= 943-451304

Donosti

Urtarrilletik apirillera
onuntz etortzen bazera,
gozatu ederra artuko dezu
txit txotxetikan txotxera.
Eta berdin joan ziñezke bai
bertan dagon jatetxera;
gose-egarriak ondo kenduta
itzulitzeko etxera.

Martuteneko sailletan dago
pake santuz Barkaiztegi,
garai batean basarri zana
jatetxe-sagardotegi.
Igande ta jai itxita dago,
atsedena izan bedi;
orrenbeste lan egin ezkerro
ez da izango geiegi.

Nola bakallo ala arraia
zainzuri eta txuleta,
etxe eder au ikusi leike
sarritan jendez beteta.
Nagusi eta etxeakoandre
da gaiñontzekon arreta;
gorantza askon jabe dirade
ondo merezi dute-ta.

Beraz emen dagoan aukera
ez dago baztar uzterik,
naiagatikan leku askotan
ez bai dago ikusterik.
Ez da paltako izketa gozo
ipuirik edo txisterik;
pakea eta alaitasuna
ez da sumatzen besterik.

Etxe ontara dagon bidea
ondo ikasi genduan,
aurreruntz ere jarrai nai degu
ikasi gendun moduan.
Besteak-beste Barkaiztegi au
nola ez izan goguan?
apenas iñor etxeratzen dan
etorritako damuan.

2012'ko Martxoan

Francis Ramon

-90-

URKIOLA SAGARDOTEGIA T1= 943210168

Donosti

Sagardotegi politik bada
bat daukagu Urkiola,
alako paraje patxaratsuan
irri-parra dariola.
Sagardo usai ederra berriz
nunnai sortutzen zaiola;
etortzen dira txori guztiak
maitatzen duten kaiola.

Eunda ogeita amar lagunentzat
lekua eta aukera,
prozesioan ibillitzeko
upeletik-upelera.
Gozamen batean jan-eranak
sartzen dira sabelera;
Euskalerriko oiturak dira,
obegorik bai ote da?

Urte guztian zabalik dago
aukera ederra txotxean,
nola bazkari ala aperi
jai-egun izan ezean.
Emen tristerik dagoan ura
azkar jartzen da pozean;
zeru puska bat aurkitzen baita
etxe ontara etortzean.

Poztekoa da ainbeste jende
izketa ezti gozoan,
da gaia berriz ainbat arazo
daudenak mundu osoan.
Gari-kolore ederrekoa
artzen dalarik basoan;
pake egilleen lekua dago
Ibaetako auzoan.

Asera duten gauza guztiak
bear dute bukaera,
etxe onetan ziartua da
ondo bukatzeko era.
Zorrak ordaindu serbitzailleak
ekarritzean papera;
esanez, "millaka eskerrak eta
berriz etorriko gera".

2012'ko Martxoan

Tomás Giménez

ASTIAZARAN SAGARDOTEGIA T1=943361229

Donosti

Txotxan denboran txotxetik eta
gaiñerakoan botilla,
urte guztian zabalik dagon
leku paketsu trankilla.
Donostitikan etzaitez asi
sagardotegi onen billa;
orretarako joan Lasartera
edo berdin Usurbilla.

Eunda berrogeita amar lagun
da askatasun osoan,
zorionaren ezti-kutsutan
jan-eranaren gozoan.
Sagardo eder dizdilaria
artzen dalarik basoan;
Astiazaran sagardotegian
Zubietako auzoan.

Bazkari, apari, egunero-egun
egin liteke bixita,
igande gaua bakarrik degu
atsedentzeko itxita.
Gose-egarriak kenduko dira
etxe ontara iritxita;
bein datorrena berriz etortzeko
ez da egongo etxita.

Alaitasuna nagusitzen da
naigabeak murrizteko,
jan-eran auek naikoak dira
ilda dagona pizteko.
Baiña onuntza etorri bear
gauza ori sinisteko;
aberastu bearrik ez da ez
zoriona iristeko.

Erri bakoitzak bere oiturak
gu euskaldunak gerade,
adiskidea zu ere noski
ala izango zerade.
Sagardotegi maitatu auek
gure ostatu dirade;
gure barrurik ez da lasatzen
onuntza etorri gabe.

2012'ko Martxoan

Ignacio Comendador

ALBERRO SAGARDOTEGIA Tel=943550019

Ernam

Otsaillaren aurrenetikan
martxoaren azkenera,
Alberro sagardotegi onetan
txotxetik dezu aukera.
Asteartetik larunbatera
dago apaltzeko era;
upel onena nun izaten dan
ondo ikasiak gera.

Lengo legerik ez da baztartzen
bakallo eta tortilla,
txuletak baneatzeko berriz
ate ondoan parrilla.
Basoa artuz maiz upelera
iturri onaren billa;
etxe au ala ezagutzen da
ta ala izan dedilla.

Irurogei lagunentzat leku
ez txiki eta ez aundi,
zenbat egarri kendu ote da
upel zar auen barrundi?
Jende jatorra beti biltzen da
emendik ez bada andi;
jan da eranak zutik egiñez
jarraitzen dute oraindi.

Esaera da, baldin badezu
sagardo ona eran naia,
"Entzun ezazu Ernamik duan
eliz-torreko kanpaia".
Alberronetik ori entzuteko
noiznai badago garaia;
etxe onetan aste eguna
errez biurten da jaia.

Maitasunezko izketa gozoz
upelan aldamenetan,
txotxeko sagardo eder ori
gogozko degu benetan.
Bat ona eta bestea ohea
aldeak daude danetan;
baiña emendik zail da ertetzen
etorritako penetan.

2012'ko Otsaillan

Ernam

OTSUA ENEA SAGARDOTEGIA Tl= 94 355 6894

Fernan

Olaizola-ta Otsua Enea
auzoak dira alkarren,
batek palta dun ura besteak
eduki lezake arren.
Bietan ere aukera ederrak
nola ikusita gauden;
bietara joatea onena
garaia pasa baiño len.

Urtarrillaren erdi aldetik
apirillan azkenera,
denboraldi orretan daukagu
txotxez gozatzeko era.
gaiñontzekoak botilletara
izango dute sarrera;
nola batetik ala bestetik
ondo ibilliko gera.

Otsua Eneako nagusiak
borondatea badute,
ainbeste jende ez luteke ez
jenio txarra balute.
Nola sagardo ala janari
bapo serbitzen digute;
lenengo aldiz izan nintzala
badira ogei bat urte.

Bi auzo auen aipamen on bat
egin nai nuke ostera,
nola batean ala bestean
izan gabeak ez gera.
Bakoitzak bere izena dauka
bakoitza bere ospera;
baiña bertsoan egin liteke
etxe batetik bestera.

Azken tragoa eginda pozik
etxera goazenean,
bertso eder bat komeniko da
Jainkoaren izenean.
Guk badaukagu Zein eskertua
onela gabiltzanean;
beste ainbeste lagun deigula
urrena gatozenean.

2012'ko Martxoan



AKARREGI SAGARDOTEGIA T1=94 355 0328

Ernani

Urtarrilletik apirillera
txotxean ainbat alderdi,
etxe onek dun izenarentzat
ez da izango gelegi.
Larunbat-igandez bazkariak,
egunero apariz segi;
astelenetan itxita dago,
ori degu Akarregi.

Etxe ontatik egin liteke
ainbat etorri ta joan,
Akarregin bein izan ezker
nola ez izan gogoan?
Gure bizitza sarri ez dabil
oso izaera bapoa;
naigabe danak aztutzen dira
onuntz etorritakoan.

Eunda berrogeita amar lagunek
emen lekua daukate,
upel bikaiñak iturri ederra
eskeintzen diguten arte.
Ondorenean leku askotara
botilletan daramate;
nere iritziz onenbestean
konpormatuko zerate.

Sagasti ederra udaberrian
ikusi ezker loretan,
sagardoaren itxaropenak
datozte une orretan.
Sagardogille maite **aueri**
gu bizi gera zorretan;
erari obeagorik noski
ez dago mundu onetan.

Erari bidez etorri leizke
ainbat naigabe ta pena,
da ez dakigu nola egiña dan
sarri eraten dutena.
Besteak-beste koka kola da
oso modan dagoena;
sagarran zumu ori eranez
ez al gabiltz ondoena?

2012'ko Apirillean

Ernani

ELORRABI SAGARDOTEGIA Tle943336990

Ernani'

Urtarrilletik irailleraiño
Elorrabin zabalera,
jendea pozik inguraturik
upelan aldamenera.
Denboraldi orretan bazkaldu
eta apaltzeko era;
batak bestea errespetatuz
ondo ibilliko gera.

Ernanitikan ez da aparte
naiko leku erosoan,
gozatutzeko txotxaren bidez
datorren txorrot gozoan.
Gari kolore ederrekoak
diz-diz egifnez basoan;
aberastasun ederra dago
Osiñagako auzoan.

Berreunda larogei lagunentzat
lekua bertan dagola,
jende jatorra izan ezkerro
guri ez digu ajola.
Sagardotegiak galdu bildurrik
ez du izango iñola;
ederra baita upel aundi bat
mama ona dariola.

Aukerik asko badago berriz
arrautz, arrai ta aragiz,
ondo zerbituko zaituzte bai
eskatu gabe bi aldiz.
Emen jendea osatutzen da
janariz eta erariz;
Ernani beartsuago gendun
Elorrabirik ez balitz.

Adiskidea barka zaidazu
ezertan bada utsegin,
edo akatsa nun ikusi dezun
bildurrik gabe itzegin.
Berriz gertatzen zeradenean
sagardo onaren premin;
pentsatu zazu zure etxea
daukazula Elorrabin.

2012'ko Apirillean

Ernani Corrochía

ERRUFINO SAGARDOTEGIA TL=94 3552739

Ernani

Errufinoren irikiera
otsaillaren bian da,
martxon ogeita zazpira arte
txotxean dagoan txanda.
Besterik gabe sagardo bidez
dago bere propaganda;
jendea pozik gelditzen baita
ondo jan eta eranda.

Esaera zaar batek dionak
badu bere esan naia:
sagardo ona erateko entzun
Ernaniko eliz-kanpaia.
Etxe ontatik orretarako
noiznai badago garaia;
triste dagoan barrua emen
errez jartzen da alaia.

Irurogeita amar lagunek
egin lezateke bixita,
gose egarriak kendutzen dira
etxe ontara iritsita.
Onuntza etorri gabe asko
ezin dirade bizi-ta;
igande-astelenetan jai dute,
bi egunetan itxita.

Uste gabeen barrua bera
sagardoaren eskera,
basoa artuz gozatutzeko
upel batetik bestera.
Zoragarria emengo txantxa
eta emengo izkera;
onela gabiltzan bitartean
ain gaizki bizi ez gera.

Janaritako beti aukeran
arrautz, bakallo, okela,
borondaterik onenarekin
aldamenean upela.
txiria kendu, txorro ederra,
pozik ematen dutela;
aurreruntz ere jarrai zazute
orain artean bezela.

2012'ko Apirillean

Ernani

OLAIZOLA SAGARDOTEGIA Tl= 943336731

Ernan

Olaizolarenera etortzeko
gaur zeñek ez du ardura?
Sagardotegi au maite liteke
prontoi bateko modura.
Besteak-beste iritsitzean
aparitako ordura;
etorriko da sagardoa ta
pelota maite dun ura.

Pelotak duan etekin ori
izanik urte gutxiko,
etorkizunan pentsamentuaz
sagardo ziran asiko.
Bi anai auek nunnaitan ere
dira askoren graziko;
mundu onetan gizatasuna
bea da lendabiziko.

Eunda berrogeita amarrentzat
pertsontzako jan-gela,
upel ederrak aukeran berriz
txorrota dariotela.
Eguneroko apariak dira
leku askotan bezela;
larunbat-igandez bazkariakin
osatutzen gaituztela.

Goizuetako bi seme auek
nik nola adierazi?
Sagardotegin zale badira
iñork ezin galerazi.
Jokoan beti izaten dira
galdu edo irabazi;
sagardo ere izan zazute
pelotan ainbeste grazi.

Sagardo berdiña izaterikan
ez dago upel danetan,
berdintasuna eziñezkoa
bai degu mundu onetan.
Saia gaitezen alegiñean
janean da eranetan;
iñor ez dedin emendik joan
etorritako penetan.

2012'ko Martxoan

Ernan Gamerdin

ALTZUETA SAGARDOTEGIA T1=94 3551502

Finantz

Sagardotegiaren kondairan
izen aundi Altzueta,
sagarran zumu eder orretan
ez bai gabiltz antzu-eta.
Zer atsedena upel guztiak
jarritakoan beteta?
Urtarrilla ezkerro iturri
ederran jabe daude-ta.

Altzueta onek berekin ditu
konta ezin ainbat birtute,
da zenbat kontu upel zar auek
gaur itzegingo balute?
Sagardotegi au zabaldu zala
larogeita zazpi urte;
bertsoak eta gure izkuntzak
estalpe izendu dute.

Eunda ogei lagunentzako
prestaturik geradela,
txox bakoitzean grazi aparta
guregana datorrela.
Orain dirua naiz ez ibilli
garai batean bezela;
oitura zarrak maite ditzagun
galduak gera bestela.

Ortik aparte zenbat txolarte
euskaldun maitagarriak?
Gure izkuntza nagusi dela
kendu nairik egarriak.
Da janariak bertako edo
nor berak or ekarriak;
aurreruntz ere jarrai zazute
gure sagardotegiak.

Upel maiteak jarrai zazute
olako borondatean,
da ingurua ipiñi ere
umore eder batean.
Agurtzekoan nagusi jaunak
diola aua betean:
"Eskerrik asko da ondo joan,
berriz etorri artean".

2012'ko Martxoan

Tomás Camerón

ZELAIA SAGARDOTEGIA Tl= 943555851

Ernanin

Sagardotegi onen izenak
kukurrukua altutik,
emen ekintzak luzitzen dute
gauz gutxi dago kontutik.
Oitura zarrak maite ditugu
dauzkagun pentsamentutik;
txotxan garaia dagon artean
jan-eran egiñez zutik.

Ernanik ditun sailletan dago
Martindegiko auzoan,
ogeita bederatzi zenbakiz
naiko leku erosoan.
Grazi apartek izen litezke
ipui, kantu ta bertsoan;
malkarrak zelai biurtzen dira
emengo giro gozoan.

Urtarrilletik apirillera
zabalik da egunero,
baldin illundutzeko zortzirak
iritsi diran ezkerro.
Zelaiarena etortzen danak
txarrikan ez du espero;
berrizko ere gogoarekin
erretiratzen da gero.

Osatzen gera arrautz, bakallo
da parrillako aragiz,
tripa zar onek zer eskatzen dun
uraxe emanez gabiltz.
Zorion auxe etorritzean
esan det amaika aldiz:
"Zeru bearrik guk ez genduke
mundua orrela balitz".

Prozesioko gisan jendea
upeletik-upelera,
ago-sapaia gozatzen dala
ondorenen sabelera.
Obeto ezin ibilli leike
oteletik-otelera;
da azkenear esango degu:
"Berriz etorriko gera".

2012'ko Martxoan

Xosmitz Parros die

ITSASBURU SAGARDOTEGIA T1=94 355 6879

Ernani

Urtarrilletik apirillera
txotxean naiko txorrota,
borondate ori duan upela
ezin liteke gorrota.
Asteazkenetik igandera
degu lanerako nota;
eunda amar lagun biltzen badira
egin bearra dago-ta.

Osiñagako auzo onetan
au da aberastasuna,
gari koloreko erari orren
dizdira ta oiartzuna.
Zenbat bertso edo kantu eder
ote da emen entzuna?
Adiskidea ori da aukera
etxe ontan daukazuna.

Euskalerrian puska eder bat
degu sagardotegia,
Ernani eta bere ingurua
orretan ez da nagia.
Aukera dago errez kentzeko
gosea ta egarria;
zerbaiteagatik maitea degu
Itsasburu basarria.

Udaberria etorri orduko
pentsatzen oporraldira,
ainbat gauza on bertan utzita
sarri goaz urrutira.
Gu baiño okerrago jendea
bizitzen dagon tokira;
askoz obe zuten esan balute:
"Goazen sagardotegira".

Aukera dago ibillitzeko
lurrez, itsasoz da egan,
ezbear eta negar pranko ere
gertatutzen da oiengan.
Bestetik berriz nun egiten da
emen bezela jan da eran?
Sarri ez gera konturatutzen
zeiñen ondo bizi geran.

2012'ko Apirillean

Ernani

LARRE GAIÑ SAGARDOTEGIA T1=94 3555846

Finari

Sagardotegi au kokatzen da
Ereñozuko auzoan,
ordu batzuek igarotzeko
dago leku erosoan.
Txox garai ori pasa liteke
ain izaera gozoan;
egunez txori kantak entzunez
ontzarenak gau osoan.

Bakallaoa saltsa berdean
edo nai bada tomatez,
aurretik enkargatu ezker
jartzen degu borondatez.
Eunda berrogei lagunentzat
lekua dun gela batez;
gertatzen dana ezin aspertu
emengo jan da eratez.

Txox garai ortan egunero-egun
apaldu liteke alai,
da ostiraletik igandera
bazkari ederra ere bai.
Nola sagardoz ala janariz
ez gera ibiltzen nolana;
Larre Gaiñera etorritzeko
pozik artu liteke jai.

Bizitza onek berekin ditu
konta ezin ainbat oz-bero,
gauz askorekin damutzen gera
denbora pasata gero.
Ongi dakigu ez dagoala
etortzerik egunero;
naigabe danak aztu ordea
onuntz etorri ezker.

Nagusi jaunari millaka esker
eman bear azkenean,
berdin serbitzaille danairi
Jainkoaren izenean.
Bizi-poza ere indartutzen da
onela gabiltzanean;
beste ainbeste gerta dedilla
urruna gatozanean.

2012'ko Apirillean

Francis Bermejo

IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIA Tel=943-550328

Pimen

Aspalditako ezagun degu
nagusi jaun Antonio,
txolarte pranko paseak gera
bera dalako merio.
Lagunarteko abe sendoa
da irriparra dario;
emen ekintzak luzitzen dute
kontu utsak ez du balio.

Urtarrillaren azken aldera
txotx denboraren asera,
da itxiera izaten dute
Pazkotatik bi astera.
Bitartean ondo gozatu leike
upel batetik bestera;
berriz joateko zaletasunez
bat etortzen da etxera.

Txotxeko denboran Iparragirre
zorionaren atari,
larunbat-igandez bazkariakin
egunerokotan aperi.
Saiatzen dira gustoa egiten
onuntz etortzen danari;
gero jendea errez asten da
bertsotan edo kantari.

Jan-eranaren aukera izanik
Iparragirren dagona,
"Krisixik emen ez da nabari",
esanez nago egona.
Bertsoan bidez ezin esan nik
etxe onek duan ona;
irriparrez ikusi bai leike
aurretik triste zegona.

Etxera erten nai eta eziña,
barru txotxaren eske,
nolako mama ederrak dauden
ortik kontura gindezke.
Nagusi jaunak esango digu:
"Guztiok ondo zoazte,
eskerrik asko, nai dezutenen
berriz etorri zaitezte".

2012'ko Martxoan

Haris Pamendia

EGILUZE SAGARDOTEGIA T1=943523905

Errenteri

Urtarrillaren erdi aldetik
maiatzaren azkenera,
sagardotegi onetan dago
txotxez gozatzeko era.
Nai bada jatetxe bezela ere
badago nai dan aukera;
Egiluzera etorri ezker
ondo ibilliko gera.

Errenteriko sailletan dago
paraje eder batean,
Astigarragako Bentatik ere
ez da oso apartean.
Gaur munduko leku askotan
ez dira bizi pakean;
gerra bildurrik guk ez daukagu
emen gabiltzan artean.

Urte guztian izango dezu
txotxa ez bada botilla,
janariz eta brasa ederrez
egur ikatzez parrilla.
Arrai, aragi edo nai bada
mota askotako tortilla;
etxe au orrela ezagutzen da
ta ala izan dedilla.

Txoriak kantuz asiko dira
egunsenti bakoitzean,
kukua ere ikusi leike
atariko zugaitzean.
Edertasun au gozatu eta
munduakin oroitzean:
Jaungoikoari esker eman
bat asten da otoitzean.

Barka zazute gaur jardun banaiz
mixiolari baten gisan,
ainbestaiñeko diparentziak
ikusten dira bizitzan.
Premi dutenaz oroitutzeko
gure dotriñak zeritzan;
gure erruz gose-egarriakin
iñor ez dedilla izan.

2012'ko Martxoan

Tomás Camarero

OLA SAGARDOTEGIA T1=94 3623130

Jaun

Ola sagardotegi ontara
egin zaidazu bixita,
ezin aspertuz jarriko zera
leku guk ikusita.
Urte guztian bazkari-apari
badegu milla grazita;
Eguberri ta astelenetan
bakarrik dago itxita.

Urte askotako etorkizuna
ezin leike izan segan,
emen sasoirik onenak ere
iges joaten dira egan.
Orain sagardotegi kargua
artua dauka beregan;
eguneroko ogi bearren
nola aurkitutzen geran.

Bertako nagusia izan gendun
segaritan txapelduna,
sagardotegi au izandu zan
gero aukeratu zuna.
Berreunda berrogei ta amarrentzat
lekua zuzentzen duna;
Meaka auzoan aurkitutzen dan
etxe jator euskalduna.

Zoragarriak dira benetan
sagastiaren emaitzak,
upel ondora arrimatzean
aitortu bear bakoitzak.
Txorrotak basoa jotzen dunean
ikusten diran diz-dizak;
sarri orixe naikoa degu
sendatzeko gure gaitzak.

Euskaldunaren gozamina da
sarritan sagardotegiz,
nola janariz ala erariz
pasa gabea geiegiz.
Eskerrik asko nagusi jauna
da serbitzailleak egiz;
egokiera daukagunean
etorriko gera berriz.

2012'ko Maiatzean

Francis Comandier

BEGIRISTAIN SAGARDOTEGIA Tl= 94 365 28 37

Jkastetxerik

Aspalditxotik ezagun degu
Iturriotz basarria,
basarri kutsu ura kenduta
sagardotegi jarria.
Etxe onetan kentzen genitun
gosea ta egarria;
askok zioten jornara pranko
bagendula ekarria.

Urtarrilletik ekaiñaren
azken egunera arte,
sagardotegi ontan txotxean
ondo artu leike parte.
Ostegun, ostiral da larunbat
bazkariakin alkarte;
igandez ixten digutelarik
atsedentzeko daukate.

Gustoko degun gauz artatikan
deskuidatzea errez-ta,
gertuen zegon tabernan gero
guk jarriko gendun pesta!
Kafe ta kopæ asiko giñan
berdin puruan galdezka;
kamio ertzetan ere etzan
gaur degun ainbeste kezka.

Etxe ontako nagusi zarrak
ondorengorik etzuten,
ikusten degu orain illobak
nola martxa artu duten.
Jatorrak eta serbitzailleak
dirala nunnai entzuten;
ea osaban leku eder au
ondo zaindutzen dezuten...?

Mingain luzea ibilli arren
Begiristaiñen ospera,
gure joanerak bajatu ziran
amarretatik bostera.
Oraindik iñoiz etortzen gera
gure barruak poztera;
ziartu nago len izan dana
bilduko dala osterera.

2012'ko Martxoan

José Luis Gamandis

OTEGI SAGARDOTEGIA Tl=943365029

Lasarte

Urtarrillarén azkenetikan
apirillan azkenera,
Otegi sagardotegi onetan
txotxez gozatuko gera,
Bazkari-apariz asteartetik
larunbateko gauera;
ulertutzeko Solla-enea
basarria degu bera.

Sagardotegia ta basarria
sarri uztarri batean,
gorputz da anima bezela dira
guzizko borondatean.
Solla-enean ikusten degu
Euskalerrri bat pakean;
kizi-pozikan ez da paltatzen
emen gabiltzan artean.

Eunda berrogeita amar lagun
txukun artzen ditun gela,
aldamenean upel sendoak
iturri ederra dutela.
Aitortu bear etor geranetan
pozik erten geradela;
nere partetik aurrera ere
ala jarrai dezatela.

Igandez eta astelen gauez
itxita dago bietan,
atsedentzeko ordu gozoak
dituzte arrats oietan.
Bazkaria enkargatu bear
nai baldin bada jaietan;
ezerren paltik izan ez dedin
premia dan garaietan.

Pozik etorri, pozikan jardun,
gero etxera penetan,
eta orixe gertatzen zaigu
etortzen geran danetan.
Txotxeko giroa baiño oberik
ez dago mundu onetan;
poztutzen gera berriz etorriko
geran itxaropenetan.

2012'ko Martxoan

Xomis Comedica

AULIA SAGARDOTEGIA Tl= 94 3806066 *Legorreta*

Izen oneko beti izanda
Legorretako Aulia,
eta biotzez jaso zazute
bere ongi-etorria.
Nai dezun gisan kenduko dezu
gosea ta egarria;
amaika barru triste poztutzen
ditun sagardotegia.

Eguneroko apariz eta
bazkariz larunbatean,
igande edo jai ez baldin bada,
guzizko borondatean.
Mundua zerbait konpondu ere
unorez eta pakean;
estuasuunik ez dago noski
ola gabiltzan artean.

Maiatzan azkena arte zabalik
irikiaz abenduan,
onuntz bidea ondo ikasia
iñor ez dago damuan.
Zorionean egun batean
guk'e ikasi genduan;
txolarte ederrak pasature bai
upel zar auen onduan.

Gauz ederra da txotxa ateraz
etorritzen dan txorrota,
gari kolore ederrekoa
ezin liteke gorrota.
Gaur oso modan dadukaguna
krisixa edo porrota;
emen ez dago orrelakorik
dana onetik dago-ta.

Eskerrik asko nagusi jauna
bein eta amaika aldiz,
aurreruntz ere sagardo auek
egin dezatela diz-diz.
Mundua Paradiso litzake
okerragorik ez balitz;
gose-egarriz jartzen geranen
etorriko gera berriz.

2012'ko Martxoan

Ignacio Eguindia

Oiartean

Ongi etorri etxe ontara
zure iritziz juzkatu,
emen daukagun artu-emanik
arren ez bedi puskatu.
Sagardo ederrak zure zai daude
da janariz ez kezkatu;
zure gogoia bete nai degu
gusto dezuna eskatu.

Lantegi ontan Lourdes daukagu
aspalditxo ikasia,
len Txikierdin eduki zuan
taberna baten grazia.
Bere senarran laguntzarekin
pamili eder bat azia;
etxeokandrea on izena dauka
lanetik irabazia.

Eskerrik asko nagusi jauna
zu etzerade atzendu,
da itxaropen orrekin gure
etxe ontara zuzendu.
Umore ederrez gose-egarriak
emen nai ditugu kendu;
ondo giñake sagardotegi au
gertuagoan bagendu.

Txikierdi artan egin gendun
nai zan ainbeste bazkari,
gose-egarriak ondo kenduta
berriro ekin lanari.
Ura utzita ekin zioten
gero sagardotegiari;
suerte on bat opa dizutet
biotzez sendi danari.

Etxekoandrea ta gaiñontzeko
bertso au pozetan entzun,
da zuen lanak izan dezala
komeni ainbat erantzun.
Zerbaiten palta bazegon eta
sagardotegi au bear zun;
gorputz da anima bezela dira
sagardoa ta Oiartzun.

2012'ko Maiatzean

Tomás Gamboa

ORDO ZELAI SAGARDOTEGIA T1=94 3491686

Oiartzun

Urtarrilletik maiatza arte
txotxeko iturri ori,
alako gauzak merezi du-ta
kontuz lurrera erori.
Sagar onaren zumu bikaiña
kolorez gorri ta ori;
upel maiteak daukaten dana
eman nairikan danori.

Garai batean Oiartzun ontan
bazan sagardotegitik,
egarri pranko kendu ere bai
upel zar auen txiritik.
Pesta polita ere sortzen zan
kantu ta bertsozarititik;
izen on ura zaindu dezagun
gaur degun Ordo Zelaitik.

Sagardotegi au txotxan denboran
ondo osatzen da jendez,
Oiartzungo Ergoienen dago
iñor asten bada galdez.
Eguneroko apari ederrak
taldeka gizon da andrez;
bazkaldutzeko aukera berriz
ostiral, larunbat, igandez.

Eun lagunentzat lekua dago
txukuna bezin zabala,
da jatekoa ekartzen dute
maiera eskatu ala.
Lagun deiogun Ordo Zelairi
era ontan gabiltzala;
aurreruntz urte askoan
orrela jarrai dezala.

Sarri munduan ez degu izaten
nai degun ainbeste sari,
ustegabeko okerrak ere
sortzen zaizka bizitzari.
Ordo Zelai ontan eusten diote
bein emandako itzari;
guk ala nai ezkerro beintzat
daude gure serbitzari.

2012'ko Maiatzean

Francis Garmerdia

BALEIO SAGARDOTEGIA Tl: 94 3491340

Oiartzun

Txotxekorikan ez duna dago
Oiartzungo Balerio,
enbarazorik onek ez du nai
txotxa dalako merio.
Sagardoa egin, upelak bete,
enbotellatu serio;
era ortara bere lanari
emaitza kendutzen dio.

Bakoitzak bere jokabideak
saldu eta erosteko,
milla aukera daude munduan
bizimoduz ikasteko.
Komeni bada erosi eta
komeni ez bada uzteko;
negozioa eskola ona da
zer egin erakusteko.

Izen bereko basarri ederran
dagon sagardotegia,
ondo pentsatzen jarri ezkerro
onez badu alderdia.
Txotxan kontua leku askotan
ez al dago geiegia?
asko tirata dagon bularra
ez baita ederregia.

Gauz ederra da sagasti on bat
udaberriko loretan,
alare emaiiz berdiñik ez da
izaten urte danetan.
Izkutu asko dago oraindik
sagardogintza lanetan;
bear ainbeste dakianikan
ez baita mundu onetan.

Illargiak'e zer ikusia
badauka sagardoakin,
da giroaren araberara
sarri oi dute irakin.
Gero zer mailla izango duan
Jainkoak bakarrik jakin;
gutxieneko eskatu bear
gaitzik ez dezala egin.

2012'ko Ekaiñean

Teoan Barmodiz

ETXE-ZURI SAGARDOTEGIA Tl. 943882049

olaberrin

Olaberrin sagardotegi bat
alperrikan etzan jaio,
izena ere aproposa du,
Etxe-Zuri deritzaio.
Atsegin aundiz egiñak gaude
jan-eranez ainbat saio;
bein etorritzen danari berriz
errez gogoratzen zaio.

Nola arraia ala okela
emen badegu aukeran,
tragoa berriz egin liteke
batek eskatzen dun eran.
Emen ez dago tristurarikan,
alaitasuna danengan;
sagardotegin nabarmentzen da
zeiñen ondo bizi geran.

Txotxean dago grazi aparta
upel ederran putzutik,
esan liteke mama gozoa
jetxitzen dala zerutik.
Sagardotegiko oitura zarrak
iraun dezatela zutik;
euskera ere indartutzen da
era onetako lekutik.

Zorionerako urte guztian
zabalik da Etxe-Zuri,
mundu ontako zeru puska bat
eskeintzeagatik guri.
Barruak pozten dituana da
sagarraren zumu ori;
alkartze eta billera onek
on dakigula danori.

Asera duan guztiak emen
izaten du bukaera,
betiko ez giñan etorri noski
au da gure jokaera.
Baiña iñork ez digu kenduko
emen bizitako era;
agur nagusi ta serbitzaille
berriz etorriko gera.

2012'ko Maiatzean

José María Permeñeta

folosa

Isastegi sagardotegia
lengo era zarrekoa,
ta sagardoa eran liteke
kolore ederrekoa.
Eskubin dagon upela-edo,
obea ezkerrekoa?
Askorentzako onena berriz
barrika baztarrekoa.

Eunda berrogeita amar lagun
naiko leku erosoan,
da jan-eranak diadiza berriz
fuentean eta basoan.
Bizi-pozaren sustraia dago
ipui, kantu ta bertsoan;
zeru txiki bat emen daukazu
Aldabatxiki auzoan.

Urtarrilletik maiatzaraiño
txotxan kargua artuta,
ondorenean millaka litro
botillan preso sartuta.
Txiri denboran ainbat janari
litezke aukeratuta:
txuletan orde z arkumea ere
aurretik enkargatuta.

Mama ederra nagusi dala
ez da leku andrebesa,
pakea eta alaitasunak
emen daukate babesa.
Nagusi jauna ta gaiñontzeko
ain dago trato erreza;
makiñabati damutzen zaio
lenago etorri eza.

Egunero-egun apaldu leike
bazkaldu larunbatean,
upel zar auen aldamenean
umore eder batean.
Igandez itxi atsedentzeko
astelena bitartean;
nagusi jaunak agurra jasoz
berriz etorri artean.

2012'ko Martxoan

Xomin Garmentia

USABAL SAGARDOTEGIA T1= 94 3674 316

Tolosa

Tolosak badu sagardotegia
Usabal deritzaiona,
upel ondora jendea pranko
inguratutzen zaiona.
Arrazoiakin etorritzen da
gose-egarriz dagona;
jan-eran bidez aurkitzen baita
etxe ontan zoriona.

Sagardotegi giroa berriz
sarri degu aparian,
berealaxe jarriko gera
zorionan atarian.
Upeletik-upelera tragoa,
trabarik ez eztarrian;
o zenbat kontu esan ote da
putzu auen baztarrian?

Sagardotegitik aparte ere
langillearen bazkariz,
premi dunari otordu ederra
eman zaio sarri aldiz.
Eguneroko soldata billa
al duten lekuan dabiltz;
obe genduke erri danetan
Usabal bat baldin balitz.

Bat asi leike bertsoetan-edo,
bestea berriz kantuan,
sagardotegi baten gaudela
eror gaitezen kontuan.
Etxen ez degu diru askorik
da gutxiago bankuan;
bizi-pozaren sustraia degu
bakarrik pentsamentuan.

Asteko bi arratsetan daude
argi guztiak itzalik,
astelena ta asteartea
atsedentzeko apalik.
Gaiñerakoan urte guztian
ikusiko da zabalik;
Tolosa ere txikiago zan
ez balitza Usabalik.

2012'ko Maiatzean

Tomás Fernández

EGUZKITZA SAGARDOTEGIA T1= 943672613

Jolas

San Juanak aldera artean
zabalik da Eguzkitza,
zuzen da ondo betetzen dute
aurrez emandako itza.
Txorrot ederrak basoa joaz
ateratzen dun diz-diza;
eta gu berriz olako lekuz
zorionean gabilta.

Sagardoaren laguntzailleak
izango dira postretan,
gazta,menbrillo eta intxaurrak
egondu gabe kezketan.
Euskaldunentzat otordu oberik
ez dago nere ustetan;
era ontako oiturarikan
bai ote dago bestetan?

Ostiral,larunbat eta igandez,
osatu leike bazkariz,
bakallo-tortilla borobildua
da gozatua zartagiz,
txuleta ederra berriz parrillan
batek nai duan alderdiz;
ondo giñake egun txarragorik
mundu onetan ez balitz.

Danok galdu ginduna izan zala
Adan da Ebaren sagarra,
gaurkoak berriz sortzen digute
zorion da irriparra.
Ala ta guztiz sagardotegiak
badauka gauza bat txarra;
era ontako paradisotik
etxera joan bearra.

Atsedena ere bearrezko da,
astelenetan itxita,
nai dan aukera izango degu
asteartetik asita.
Adiskidea beti lanean
ezin gindezke bizi-ta;
berriro ere nai dezunean
egin zaiguzu bixita.

2012'ko Maiatzean

Azoris Garmendia

ALTUNA SAGARDOTEGIA

Tl=94 3554917

Urnietā

Zabaldutzeko urtarrilla-ta
itxitzeko apirilla,
garai orretan etorri leike
txotxeko txorrotan billa.
Bazkari-apari gusto duena
lasai exeri dedilla;
Altunan degu aukera ori
biotzetik esker milla.

Garai bateko euskaldun aiek
ziran sagardotegiko,
bolan da token jardun ere bai
kanpoko eta erriko.
Beste batzuek kantua edo
bertsoa zuten begiko;
txotxeko iturritik eranez
gaizki etziran ibilliko.

Larogeita amar lagunek emen
leku txukuna daukate,
Norteko trenan geltokitikan
ez dago oso aparte.
Gose-egarriz bat egon leike
onuntza etorri arte;
aukera ori daukazutenak
zoriontsuak zerate.

Zenbat kontu ta zenbat arrazoi
upeletik-upelera,
lege zarrari jarraitutzeko
guk izan degu aukera.
Emakumeak ere badatoz
gizonarekin batera;
errespetoa dagon lekuan
ondo ibilliko gera.

Udaberrian sagasti eder bat
ikusten bada loretan,
sagardoz amets egingo degu
zalantzik ez da orretan.
Gure aurreko euskaldunairi
bizi gerade zorretan;
sagardotegiak lekuko dira
gure oitura zarretan.

2012'ko Apirillean

Jedris Camardis

SETIEN SAGARDOTEGIA T: 94 3551014

Urtarrilak

Urtarrillaren azkenetatik
apirillaren erdira,
Setien ontan egin liteke
txotxan inguruko jira.
Larogeita amarrentzat leku
ezker eta eskubira;
pakea eta sagardo zaleak
emen gozatutzen dira.

Alkarrengandik gertuan daude
Setien da Elutseta,
biak sagardotegi ederrak
bat gelditzeko aseta.
Jan-eranean aukera dago
nai dan ainbeste klaseta;
nolaz gabilta sarritan goibel
izanik ainbat gauz-eta?

Egunero-egun gozatu leike
sagardo eta apariz,
ostiral, larunbat eta igandez
era berean bazkariz.
Igande gau ta astelen osoz
itxita atseden premiz;
bein onuntza datorren ura
errez etortzen da berriz.

Lañorik ez bada eguzki ederrak
besarkatzen du goizetan,
txori guztiak kantuz dirala
inguruko zugaitzetan.
Sagasti eta landare danak
tanta jario intzetan;
da upeletan mama gozoak
irakiñaren izketan.

Euskalerrian ez bedi palta
gure sagardotegirik,
sagardotegirik ez baldin bada
ez dago Euskalerririk.
Egia esan guk ez dakigu
mundu guztiko berririk;
bai ote zoriona ain gertu
berekin duan erririk?

2012'ko Ekaiñean

Francis Gamendia

OIANUME SAGARDOPEGIA Tl= 94 3556683

Cinik

Upel ederrak bete artean
sagardotegia itxita,
andik aurrera urte guztian
egin liteke bixita.
Eguberritako jai aundiak
oporretako utzita;
bazkari-apariz osatu leike
egoartetik asita.

Igande gauez izaten dute
atsedentzeko denbora,
pestara joan nai bada ere
garai ona izango da.
Bakoitzak bere zaletasunak
ekartzen ditu gogora;
astelenean berriz biltzeko
upel zar auen ondora.

Irureun eta berrogeiko,
amar geioko taldea,
mendian ere nun ikusten da
orrelako artaldea?
Zenbaki ortaz ondo beteaz
Oianumen barrunbea;
ondo ematen duten lekura
pozikan dator jendea.

Enbor sendoan inguruetan
ez da paltatzen adarrik,
Oianume au osatzen dala
ez dago esan bearrik.
Aukera danen ezin baztartu
kaferik eta patarrik;
etxe onetan ez baita saltzen
sagardo ona bakarrik.

Mundu onetan zenbat pertson dan
bada ainbeste izate,
Oianumera etorritzen da
konta ezin ainbat gizarte.
Naidan herririk ez da jakiten
bertara etorri arte;
gezurrik ez dedala esaten
konturatuko zerate.

2012'ko Martxoan

Txomis Omeñdik

EULA SAGARDOTEGIA T1=94 3552744

Urtarril

Sagardo onaren fama beti da
Urnietako lurrean,
Eulako sagardotegi au
ezin utzi baztarrean.
Bakallo-tortilla eta txuleta,
upelak berriz urrean;
euskera ederra nagusi dala
lengo oitura zarrean.

Eun bat lagunentzat lekua da
guzizko borondatean,
da upeletikan upelera
ibilli leike katean.
Danak pamili bat bezelaxe
kontu kontari pakean;
estuasuunik ez da sumatzen
emen gabiltzen artean.

Urtarrilletik apirillera
txotxeko txorrotak diz-diz,
epariz aparte larunbatez
da igandetan bazkariz.
Atsedentzeko astelenetan
itxita daukate berriz;
obe genduke emengo aukera
basarri danetan balitz.

Eulak daukan aberastasuna
ez da ikusten nunnari,
inguru ontan txoriak ere
jartzen dira bertsolari.
Oiek goizetik da gu illuntzez
asitzen gera kantari;
nun gertatzen da sagardotegik
duan ainbeste mirari?

Eskerrik asko nagusi jauna
da berdin serbitzailleak,
ordu gozoak pasa ditugu
batere akats gabeak.
Bagoaz baiño berriro emen
nai genduke guk zaleak;
orretarako lagun deigula
zeru ta lurren Jabeak.

2012'ko Martxoan

Joakin Armendariz



ELUTSETA SAGARDOTEGIA

71- 943 556981

- 69 -

Urtz

Maiatzaren aurrena artean
txotxeko ori gogora,
baiña joanaldi geiago ere
egin litezke gerora.
Nola bazkari ala aparti
sagardotegi girora;
Elutsetako upel ondotan
errez joaten da denbora.

Basoa artuz kontu jario
prozesioan txotxera,
belarriak ere gozaten dira
txorro-txirristan otsera.
Triste zegoan barrua azkar
biurtutzen da pozera;
ikusiko dezu etxe ontara
etortzen baldin bazera.

Berreun lagunentzako lekua
ori ez da gero txantxa!
Arrigarria jan-eranakin
ikusi liteken dantza.
Beti ezinda emen jarraitu
ori da gure arantza;
gaiñontzekoan Elutsetak du
zeru txiki baten antza.

Sagardo dizdilariak dira
sarri Elutsetarenak,
arraiez eta aragiz berriz
izan litezken onenak.
Txoriak kantuz, kukua kukuz,
atari ta aldamenak;
udaberrian bizi gerala
erakusten digutenak.

Txorian kantak ixiltzen dira
zuzen arrats illunean,
sarritan guri kantu gogoa
etorritzen zaigunean.
Da batez ere gose-egarriak
kendutzen ditugunean;
zorion ori billa dezagun
aukerarik degunean.

2012'ko Otsailean

Xomis Garmendia

ARRAZAIN SAGARDOPEGIA Tl=943366663

Arzak

Urte guztian zabalik dago
txotxa, bazkari, apari,
etxe ontako egokiera
ez da ikusten nunnari.
Emen kristaurik ixillenare
pozik asten da kantari;
txoriak eta kukuak berdin
jartzen dira bertsolari.

Eunda ogei lagumentzat leku
paketsu bezin alaia,
da batez ere etortzen danen
sagardo berri garaia.
Upeletik-upelera txotxa
janariz betea maia;
adiskidea aukera dago
aragia edo arraia.

Olako toki patxaroso
mendi ederrak lekuko,
bati ainbeste zoriontasun
zaizkio gogoratuko.
Nai dan guztitan aukera aure
ez bai zaigu gertatuko;
Arrazainera etortzen dana
iñoiz ez da damutuko.

Bietatikan gozatutzeko
eskuan dezu adurra,
ondoren jarriko zaizkizu
gazta, menbrillo, intxaurra.
Guztiangatik ordain bearra
izango degu samurra;
Arrazain onek errez pozten du
gure bizitza laburra.

Gose-egarriz etorri arren
bagendun guretzako lain,
eurotan pozik eman ere bai
eskatu ainbeste ordain.
Eskerrik asko danori eta
zer geiago esan orain?
Laister gerala berriro emen
ordura arte Arrazain.

2012'ko Maiatzean

Francis Gamendia

URDAIRA SAGARDOEGIA T1=94 3372691

Luxibel

Urdairan izandako egunak
ondo gogoan dauzkat nik,
Agiñagako auzoan dago
mendian gora joanik.
Gure aurrean etzan paltatu
ez janik eta ez eranik;
ez naiz oroitzen obekiago
iñun ibilli geranik.

Larogei lagunentzat lekua
txukun da garbi jarria,
eguraldi otzetarako berriz
badago berogarria.
Urdairan errez kendutzen dira
gosea ta egarria;
batetik sagardotegia da...
bestetikan basarria.

Urtarrillaren erdi aldetik
maiatzaren aurrenera,
Urdairan ori daukatelarik
txotxa ibiltzeko era.
Larunbat, igandetan bada or
bazkaldutzeko aukera;
igande gauez da astelenetan
dute asteko itxiera.

Egun guztia igaro leike
txorian kantak entzunez,
bere garaian kukua ere
ikusi izan degunez.
Arnas-berritze ederragorik
indartzeko osasunez...?
Pake lekuak asko dirade
obeagorik iñun ez.

Eskerrik asko serbitzailleak
Jainkoaren izenean,
nagusi jaunari beste ainbeste
esan bear azkenean.
Naigabe danak uxatzen dira
onela gabiltzanean;
gaurko gisara nai genduke guk
urrena gatozanean.

2012'ko Maiatzean

Tomis Gimundia

Urrutik

Saizar ontara etortzen danak
aukera dauka danetik,
izen aundia artua dauka
sagardoaren lanetik.

Nola arrai ta aragi erre
serbitzen degu onetik;
gero penetan erten bearko
olako zorionetik.

Adiskidea baldin bazabiltz
sagardotegi on billa,
burua geiegi nekatu gabe
etor zaitez Usurbilla.
Etxe onetan piztuko zaizu
zure biotz erdi-illa;
guk nai deguna auxen da eta
ala gertatu dedilla.

Berreun da berrogei lagunentzat
gela txukun da prestua,
serbitzaillean borondatea
izan leike berezkua.

Neurritik ez da pasako berriz
egiten dezun gastua;
onuntz datorrena Saizarrekin
ez da gelditzen aztua.

Gari kolore apaiñekoak
egiten digute diz-diz,
erlea lore arten bezela
txiritik-txirira gabiltz.
Izaera oni begiratuta
esan det amaika aldiz,
naiago nuke zerua ere
onen antzekoa balitz.

Emen geienak bizi gerade
zorionan ametsetan,
ori oso zail izango degu
mundu ontako gauzetan.
Saizar ontako artu-emanak
ezin gelditu utsetan;
etxeratuko gerade baiño
berriz etorri pozetan.

2012'ko Martxoan

Tomás Penabazkorta

ARIZIA SAGARDOTEGIA T1= 943100489

Zarautz

Sagardotegirik gabe noski
Zarautz ezin leike bizi,
da Ariziak lege zarrari
zintzo nai lioke eutsi.
Ondartza eta kafeteriak
izan litezke nagusi;
baiña sagardotegi giroririk
oraingoz pakean utzi.

Sagarran bidez ainbat iturri
da txotxean ondorenak,
askotan erabakitzen zail
nun ziran trago onenak.
Kanpotarrak'e izan litezke
au ikusitzen dutenak;
jakin dezaten oitura asko
zer diran euskaldunenak.

Urte guztian zabalik dago
bazkariz era apariz,
txotxean berriz nai dan aukera
txit sagardo ori-gorritz.
Eta zer poza basoa artuz
upel ondora etorritz;
Zarautz ere tristeago zan
Ariziarik ez balitz.

Gure izkuntza maiteak ere
emen bear du babesa,
gose-egarriak ondo kentzeko
ez da leku andrebesa.
Eta ontatik aurrera berriz
bakoitzak pentsatu beza;
makiñabati damutzen zaio
lenago etorri eza.

Aitortu bear milla aukera
Zarautz onek daduzkala,
emen bizitzea auntzen gaueko
eztula ere ez dala.
Gutxieneko guk nai deguna
euskaldunaren itzala;
da Arizia sagardotegiak
aurrera jarrai dezala.

2012'ko Maiatzean

Xomis Paredes

OTAZA SAGARDOTEGIA Tl=943801757

Zeraiñ

Zeraiñen degu sagardotegia
deritzaiona Otaza,
erri txikia izanagatik
ez al dijoa gorantza?
Udaberrian ederra dago
ondo zaintzen dan baratza;
nik Otazari ematen diot
orrelako baten antza.

Ainbat berrikuntza egin dalarik
dago erri dotorea,
erritarrai esker artu dituzte
izena ta oorea.
Gauza bat ona ikusten bada
bestea ~~berriro~~ orea;
Zeraiñ, txiki-aundia degu
da Goierriko lorea.

Asteartetik larunbatera
jendea apartetan,
bazkaldu ere egin liteke
larunbat eta jaietan.
Sagardo zaleak gozatzen gera
upel inguru oietan;
urtarrilletik maiatzera
txotxak duan garaietan.

Sagardotegi bat palta zan da
urare osatu zuten,
eta nork daki upel oriek
zenbat jende poztu duten?
Otazan gorantzak leku askotan
asiak gera entzuten;
ea urte askoz txorro ederori
orrela ematen dezuten.

Jendea pranko bilduko gera
bateko eta besteko,
emen ez dago galerarikan
guztia irabazteko.
Upel ondora bildu gaitezen
gure barruak pozteko;
gauza askoren bearrik ez da
pobrea aberasteko.

2012'ko Maiatzean

Xornis Egoztiak